



Kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko  
arriskuaren eta zehapenen eta nazioarteko aurkako  
neurri finantzarioen kudeaketari buruzko Politika  
korporatiboaren Printzipio Orokorrak

2025eko urtarrilaren 29a

## Edukia

1.	Sarrera	3
1.1	Aurrekariak	3
1.2	Kapitalak zurrizkeo eta terrorismoa finantzatzeko arriskuaren eta zehapenen kontzeptua	3
1.3	Helburua	4
2.	Aplikazio-eremua	5
3.	Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak	6
4.	KZ/TFPren eta Zehapenen kudeaketa-esparrua	7
4.1	Arriskuen ebaluazioa	7
4.2	Arreta egokia	7
4.3	Eragiketen detekzioa, kontrola eta azterketa	10
4.4	Eragiketa susmagarrien jakinarazpena	10
4.5	Zehapenen zerrenden kontrola eta detekzioak jakinaraztea	11
4.6	Dokumentazioa atxikitzea	11
4.7	Prestakuntza	12
4.8	Arriskuaren kudeaketa finkatua	12

## 1. Sarrera

### 1.1 Aurrekariak

CaixaBank, S.A. (aurrerantzean, "CaixaBank"), haren taldea (aurrerantzean, "Taldea" edo "CaixaBank Taldea", bereizi gabe) osatzen duten enpresen sozietate buru gisa, irmoki konprometituta dago kapitalak zuritzearen prebentzioarekin, eta ekintza terroristen finantzaketa prebenitzearekin (aurrerantzean, KZ/TFP) nahiz zehapen-programen eta nazioarteko aurkako neurri finantzarioak (aurrerantzean, "Zehapenak") betetzearekin, aktiboki sustatuko duelarik gai horretako nazioarteko estandar altuenen aplikazioa.

Kriminalitate finantzarioa fenomeno unibertsal eta globalizatua da eta langa komertzialen desagertzea eta ekonomiaren nazioartekotzea baliatzen du gauzatzeko. Fenomeno horren aurkako borroka nazioarteko komunitatearen erantzun koordinatua eskatzen du orokorrean, eta finantza-sektorearena bereziki, oharkabean eta nahi gabeko moduan legez kontrako xedeekin erabiltzea saihesteko.

### 1.2 Kapitalak zuritzeko eta terrorismoa finantzatzeko arriskuaren eta zehapenen kontzeptua

Printzipio honen interpretazio- eta aplikazio-ondorioetarako, horrela ulertuko dira honako hauek:

#### Kapitalen zuriaketa

- Ondasunen bihurketa edo transferentzia, jakinda ondasun horiek delitu-jarduera batetik edo delitu-jarduera batean parte hartzetik datozela, ondasunen legez kontrako jatorria ezkutatu edo estaltzeko asmoarekin, edo haien ekintzen ondorio juridikoak saihestu nahi dituzten pertsonen laguntzeko.
- Ondasunen izaeraren ezkutetzea edo estalketa, jatorria, kokapena, xedapena, mugimendua edo jabetza, edo ondasunen gaineko eskubideak, jakinda ondasun horiek delitu-jarduera batetik edo delitu-jarduera batean parte hartzetik datozela.
- Ondasunak eskuratzea, edukitzea edo erabiltzea, jakinda ondasunak jasotzen direnean ondasun horiek delitu-jarduera batetik edo delitu-jarduera batean parte hartzetik datozela.
- Aurreko paragrafoetan aipatutako jardueraren batean parte-hartzea, ekintza mota horiek egiteko elkartzeak, horiek gauzatzeko saiakerak eta norbaiti lagundu, bultzatu edo aholkatzea horiek egiteko edo egitea errazteko.

Delitu-jarduera batetik datozen ondasuntzat hartuko dira delitu baten ondorioz eskuratu edo edukitzen diren aktibo mota guztiak, materialak eta ez-materialak, higigarriak edo higiezinak, ukigarriak edo ukiezinak, baita forma edozein dela ere, elektronika edo digitala barne, aktibo horien jabetza edo horien gaineko eskubidea egiaztatzen duten dokumentu edo tresna juridikoak ere, Ogasun Publikoaren aurkako delituen kasuan iruzur egindako kuota barne.

Kapitalak zuritu direla ulertuko da, ondasunek sortu dituzten jarduerak beste estatu bateko lurraldean

egin badira ere.

Azkenik, kapitalak zurrizkeo prozesuan honako fase hauek bereizten dira:

1. **Kokatzea edo ezkutatzea:** Delituzko jardueretatik datorren eskudirua zirkuitu finantzarioetan sartzea edo beste aktibo batera aldatzea.
2. **Metaketa:** Jurisdikzio bateko edo desberdinetako produktu edo zerbitzuen artean intsuldaketak edo mugimenduak egitea, zenbatekoak zatikatzeke, metatzeko, ezkutatzeko, lekualdatzeko eta diruen jatorriari buruzko ikerketetan edo, halaber, diruaren jatorriak legezko itxura hartzen duten kontuetan, hain zorrotzak ez diren jurisdikzioetan gordailutzeke, edo benetako jatorria arakatzea eragozten duten beste transakzio batzuk egitea.
3. **Integrazioa:** Kapitalak finantza-sisteman legitimitate-itxurapean sartzea.

CaixaBank Taldeko erakundeak eta sozietateak deskribatutako prozesuaren edozein fasetan erabil daitezke, batez ere "kokatze-fasean"; beraz, arrisku hori kudeatzeko beharrezkoak diren barne-kontrolako neurriak hartu behar dira.

#### **Terrorismoaren finantzaketa**

Funtsak edo ondasunak hornitzea, gordailutzea, banatzea edo biltzea, edozein bitartekoren bidez, zuzenean edo zeharka, horiek erabiltzeke asmoz edo, osorik edo zati batean, zigor-araudi aplikagarrian terrorismo-delitu gisa tipifikatutako edozein egitekorako erabiliko direla jakinda.

Terrorismoaren finantzaketa dagoela ulertuko da funts edo ondasunen hornidura edo bilketa beste estatu bateko lurraldean egiten denean ere.

#### **Nazioarteko finantza zehapenen eta kontrako neurrien programa**

Nazioarteko zuzenbidea, giza eskubideak edo eskubide eta askatasun zibilak urratzea eragozten duten neurri murriztaileak ezartzeko asmoz herrialdeek eta nazioarteko edo nazioz gaindiko erakundeek erabiltzen dituzten tresna politiko, diplomatiko edo ekonomikoak.

### **1.3 Helburua**

Dokumentu honen helburua kapitalak zurrizkeo eta terrorismoa finantzatzeko prebentzioaren arriskua (aurrerantzean, KZ/TFP) eta zehapenak arautzen dituzten printzipioak eta premisak jasotzea da.

KZP/TFren eta Zigoren gaineko Politika Korporatiboaren Printzipio Orokorren (aurrerantzean, "Printzipioak") helburua da Taldean betetze-esparru bat ezartzea, sozietate guztiek aplikatu behar dutena beren jardueretan, negozioetan eta harremanetan, bai nazionalki, bai nazioartean, kapital-zurrizkeo eta terrorismoaren finantzaketa prebenitzeko, bai aplikagarriak diren nazioarteko zehapen- eta kontraneurri-programak betetzeko.

## 2. Aplikazio-eremua

Printzipio hauek korporazio-izaera dute. Ondorioz, zehazten diren jarduketa-printzipioak CaixaBank Taldeko sozietate guztiei aplikatu daitezke, baldin eta haien irismeneko jardueraren bat egiten badute. Sozietate horietako gobernu-organismoek printzipio hauetako xedapenak integratzeko behar diren erabakiak hartuko dituzte, eta, proportzionaltasun-printzipioari jarraituz, gobernu-esparrua gobernu-organismoen, batzordeen eta sailen egituraren jiteran egokituko dute, bai eta dokumentu honetan deskribatzen diren jardura-printzipioetara, metodologietara eta prozesuetara ere.

Integrazio horrek, beste erabaki batzuen artean, sozietateak politika propio bat onartzea ekar dezake. Onarpena beharrezkoa izango da Printzipio hauetan xedatutakoa euren berezitasunetara egokitu behar duten sozietateetan, dela gaiarengatik, dela jurisdikzioagatik, dela gizartean arriskuak duen garrantziagatik. Kasu horretan, CaixaBanken (*Compliance* Zuzendaritza) betetze-funtzioak, izaera korporatiboa duenez, politika horiek politika korporatiboarekin eta CaixaBank Talde osoaren sendotasunarekin bat egiten dutela zainduko du.

Bestalde, sozietatearen arriskua kontrolatzeko eta kudeatzeko jarduerak zuzenean CaixaBank-etik egiten direnean, dela sozietatearen arriskuaren materialtasunagatik, dela eraginkortasun-arrazoiengatik nahiz sozietateak arrisku horren kudeaketa operatiboa CaixaBank-en kanpora atera duelako, eragindako sozietateetako gobernu-organismoek Politika korporatibo honen berri izango dute, bai eta sozietate horiei aplikatzen zaiela ere.

### 3. Arau-esparrua. Araudi eta estandar aplikagarriak

Printzipio hauek indarrean den eta aplikagarria den araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira, baita etorkizunean hura ordeztzen edo aldatzen duenaren arabera ere. Zehazki, hura egiten den datan, araudi hau aplikatuko da Taldearen matrizeari:

- Kapital Zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legea.
- Kapital Zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren Prebentzioari buruzko apirilaren 28ko 10/2010 Legearen Erregelamendua onartzen duen maiatzaren 5eko 304/2014 Errege Dekretua.
- Terrorismoaren finantzaketa blokeatzeari buruzko maiatzaren 21eko 12/2003 Legea.
- Kapital-zuriketa prebenitzeko araudia aplikatzearekin zerikusia duten Europar Batasuneko erregelamenduak.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1624 (EB) Erregelamendua, 2024ko maiatzaren 31koa, kapitalak zurrizkeo edo terrorismoa finantzatzeko finantza sistemaren erabilera prebenitzeari buruzkoa.
- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/1620 (EB) Erregelamendua, 2024ko maiatzaren 31koa, Kapital Zuriketaren eta Terrorismoaren Finantzaketaren aurka Borrokatzeko Agintaritza sortzen duena.
- Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2023/1113 (EB) Erregelamendua, 2023ko maiatzaren 31koa, funtsen eta kryptoaktibo jakin batzuen transferentziekin batera doan informazioari buruzkoa.
- Nazioarteko finantza-zehapenak aplikatzearekin zerikusia duten Europar Batasuneko erregelamenduak.
- Nazioarteko Finantza Ekintzako Taldearen (GAFI) gomendioek nagusiki ordezkutzen dituzten nazioarteko erakundeen estandarrak.
- Betetzearen kudeaketari buruzko eta KZP/TF betetzeko arduradunaren zereginari eta erantzukizunei buruzko politikei eta prozedurei buruzko EBaren jarraibideak, 2015/849 (EB) Zuzentarauaren 8. artikuluen arabera (EBA/GL/2022/05 - 2022ko ekainaren 14a)

Atzerriko jurisdikzioen edo sektore-araudi osagarrien arabeko sozietate edo sukurtsalen kasuan, sozietate horien gidalero eta prozedurek kontuan hartuko dituzte, haien barne araudiaz gain, arestian aipatutako araudian dauden betebeharrak, ez baldin badira dagokion jurisdikzioaren edo sektore-araudien eskakizun espezifikoen aurkakoak.

Amaitzeko, Taldeko sozietate bakoitzean, edo hala badagokie, sukurtsaletan beharrezko esparruak, arauak, argibideak edo prozedurak sortuko dira, Printzipio hauek ezarri, exekutatu eta betetzeko.

## 4. KZ/TFPren eta Zehapenen kudeaketa-esparrua

Printzipio hauek arautzen duen prebentzio-esparrua printzipio eta estandar nagusi hauek osatzen dute:

1. Arriskuen ebaluazioa
2. Arreta egokia
3. Eragiketen detekzioa, kontrola eta azterketa
4. Eragiketa susmagarriaren jakinarazpena.
5. Zehapenen zerrenden kontrola eta detekzioak jakinaraztea
6. Dokumentazioa atxikitzea
7. Prestakuntza
8. Arriskuaren kudeaketa finkatua

### 4.1 Arriskuen ebaluazioa

Taldeko sozietateek kapital-zuriketaren, terrorismoaren finantzaketaren eta zehapenen arriskuekiko duten esposizioak lotura zuzena du negozio edo jarduera motarekin, merkaturatutako produktuekin, emandako zerbitzuekin, merkaturatze-kanalekin, bezeroen tipologia eta ezaugarriekin eta/edo jarduten duten jurisdikzioekin.

Arriskuan oinarritutako ikuspegia duen kontrol- eta prebentzio-esparru egokiari eusteko, Taldeko sozietateak arrisku-mailaren arabera kategorizatu behar dira, arrisku-maila handiena duten sozietate, segmentu, kanal, jurisdikzio edo produktuetan gainbegiratze-maila handiagoa aplikatzen dela bermatzeko.

### 4.2 Arreta egokia

Bezeroak onartzeko politikak eta behar bezalako diligentziarako neurriek ezin izango dute inolaz ere eskubiderik urratu Taldeko sozietateak jarduerak burutzen dituen jurisdikzioetan.

Bezeroak onartzeko politika dinamikoa da, eta betetze-esparru bat ezartzen du Taldean, segmentu edo jarduera jakin batzuen arrisku-mailaren arabera aldatu ahal izango dena, unean-unean harekiko duen esposizioaren arabera. Onarpen-politikak nazioarteko estandarrak bete behar ditu, eta "Ezagutu Zure Bezeroa" (ingelesez KYC (*Know Your Customer*) siglengatik ere ezaguna) printzipioa. Arreta berezia jarri behar da une oro bezeroa eta haren jarduerak ondo ezagutzen direla bermatzeko.

*Know Your Customer* printzipioa eta arrazoizko arretaren politikak beti aplikatuko dira arriskuan oinarritutako ikuspegi batekin, eta ziurtatuko dute aplikatutako neurriak egokiak direla kapitalak zuzitzeko, terrorismoa finantzatzeko edo zehapenatarako azpian dagoen arriskurako.

[Bezeroen sailkapena.](#) Taldeko sozietateen bezeroak arriskuaren arabera segmentatu eta sailkatu behar dira, arriskuarekiko esposizioa arinduko duten prebentzio- eta kontrol-neurriak diseinatzea ahalbidetuko duten elementu gisa, arrisku-maila handiagoa duten bezeroei neurri eta kontrol zorrotzagoak aplikatze aldera.

Kontrolak eta prozedurek negozio-harremanaren jarraipen egokia eta etengabea bermatu behar dute, arrisku-maila eta, beraz, aplikatu beharreko neurriak une oro bezeroaren arrisku-egoeretara egokitzeko.

Arrisku-mailaren balorazioa CaixaBank Taldeko sozietateetan dokumentatuko da, jardueraren eta eragiketaren arabera. Sailkapen hori zehazteko, hainbat faktore hartuko dira kontuan, sozietatearen eta haren bezero edo hornitzaileen arriskuarekiko esposizioaren arabera, eta, gutxienez, honako faktore hauek barne hartuko dira:

- Bezeroaren ezaugarriak:
  - Jarduera.

- Eremu geografikoa.
- Erantzukizun Publikoko Pertsona.
- Benetako titularren identitatea.
- Jabetza- edo kontrol-egitura.
- Produktuen edo zerbitzuen ezaugarriak:
  - Produktu mota.
  - Negozio-segmentua.
  - Harreman-kanala.
- Operatiboaren ezaugarriak:
  - Funtsen jatorria.
  - Transakzioak.

Taldeko sozietateek, gutxienez, bezeroen sailkapen hau erabili beharko dute, identifikatutako arrisku-mailaren arabera:

**Onartu ezin diren pertsonak:** Ezingo dira onartu egoera hauetakoren batean dauden pertsona fisiko edo juridikoekin egindako negozio-harremanak:

- Onarpen-prozesuan politika honetan aurreikusitako arrazoizko arretaren neurriak aplikatu ezin izan zaizkien pertsonak.
- Zehapenen nazioko edo nazioarteko zerrendetan dauden pertsonak, eta Politika honetan eta arlo horretan aplikagarri den legezko araudian definitutako zehapen-programen arabera bezero gisa onartu behar ez direnak.
- Negozioak dituzten pertsonak, baldin eta negozio horien izaerak ezinezko egiten badu eragiketen zilegitasuna edo funtsen jatorria egiaztatzea.
- Benetako titularren eta/edo onuradunaren identifikazio formala egitea ahalbidetzen duen dokumentazioa ematea ukatzen duten pertsonak, edo, eman arren, Erakundeak horren kopia digitalizatua gordetzeari uko egiten diotenak.
- Argi eta garbi faltsuak diren dokumentuak aurkezten dituzten pertsonak, edo beren legezkoatasun, zilegitasun edo manipulaziorik ezaren inguruko zalantza handiak dituztenak, edota edo berme nahikorik eskaintzen ez dutenak.
- Deklaratutako jarduerak edo funtsen jatorria egiaztatzeari dagokionez eskatutako informazioa edo dokumentazioa ematea ukatzen duten pertsonak, hala nola, Erakundearekin duen harreman komertzialaren xedea eta izaeraren ingurukoa.
- Jabetza- edo kontrol-egitura zehaztu ezin zaien pertsonak eta tresna juridikoak, edo benetako titularra zehaztu ezin den sozietateetan.
- Pantaila-bankuak eta horrelako erakundeekin jarduten duten finantza-erakundeak.
- Finantza-jarduerei, ausazko jokoei, apustuei, ordainketa-erakundeei, moneta-trukeari, ordainketa-erakundeei edo bestelako jardueri dagozkien eragiketak egin nahi dituzten pertsonak edo erakundeak, dagokien baimen ofiziala edo legez eska daitezkeen beste baldintza batzuk izan gabe.
- Aurrekoetan jaso ez den beste edozein kategoria, baldin eta, arau juridiko batean edo sozietatearen barne-politika batean aurreikusitakoaren arabera, baztertu egin behar bada.
- Uneren batean Taldearen bezero izan arren, Politika hau aplikatuta bezero izateari utzi dioten pertsona fisiko edo juridikoak.

**Batez bestekoa baino arrisku handiagoko pertsonak:** bezero gisa onartzeko, arreta indartuko neurriak aplikatu beharko dira, eta onarpen zentralizatua eskatuko dute. Kategoria honetan honako pertsona edo erakunde hauek sartuko dira:

- Erantzukizun publikoa duten pertsona fisiko nazionalak eta atzerritarrak.
- Estatuko eta atzerriko pertsona juridikoak, benetako titularra erantzukizun publikoa duten pertsonak badira, bai nazionalak, bai atzerritarrak.
- Arriskuko jurisdikzio batean bizi diren pertsona fisikoak.
- Arriskuko jurisdikzio bateko nazionalitatea duten eta, arrisku-matrizean aintzat hartutako edozein faktore gehituta, batez bestekoa baino arrisku handiagoa duten pertsona fisikoak.
- Arriskuko jurisdikzio batean egoitza duten edo eratuta dauden pertsona juridikoak, edo arriskuko jurisdikziotzat jotzen diren jurisdikzioak ez diren beste herrialde batean eratuta daudenak edo egoitza hori dutenak, eta horien benetako titularrak, jabetzaren edo kontrolaren bidez, arrisku-jurisdikzio batean nazionalitatea eta/edo bizilekua dutenak.
- Banku pribatuko bezeroak.
- Korrespontsalia-harremanak.
- Oro har, haien jarduera "kriptomonetak" edo "kriptoaktiboak" jaulki edo bitartekotzan oinarritzen duten pertsonak edo erakundeak.
- Armak eta bestelako elementu militarrik ekoiztearekin, merkaturatzearekin, banatzearekin eta saltzearekin lotutako bezeroak.
- Diru elektronikoko erakundeak eta ordainketa-erakundeak dirua bidaltzeko eta/edo atzerriko moneta trukatzeko zerbitzuak.
- Kasinoak, jolas-jokoak ustiatzeko sozietateak eta ausazko jokoei lotutako beste sozietate batzuk, dagokien baimen ofiziala edo legez eska daitezkeen beste baldintza batzuk dituztenak, baita beste edozein arrisku-sektore ere, prozedura espezifikoei hala eskatzen dutenean.
- Eramailereantzako tituluak dituzten sozietateak, jabetza- edo kontrol-egitura zehaztu ondoren.
- Edozein pertsona fisiko edo juridiko, baldin eta, bere ezaugarriengatik edo eragiketengatik, UPBCK ondorioztatzen badu gomendagarria dela bezerotzat hartzea edo arriskuaren arabera sailkatzea.
- Aktiboak Edukitze Hutseko Erakundeak (AEHEak)

**Gainerako pertsona** edo erakundeak arretazko neurri normalen edo sinplifikatuen mende geratuko dira, aplikatzekoa den araudian edo barne-arau eta -prozeduretan ezarritakoaren arabera.

**Bezeroen identifikazio formala.** Printzipio hauek garatzen dituzten arauak eta prozedurek bezero guztiak behar bezala identifikatzen dituztela bermatu behar dute Taldeko sozietateetan, une bakoitzean eta jurisdikzio bakoitzean aplikagarria den legediaren arabera. Horrek, betiere, barne hartuko du nortasuna agiri baliodunen eta indarrean daudenen bidez egiaztatzea.

Inolaz ere ez da negozio-harremanik izango identifikatu ezin izan diren pertsonekin, eta debekatuta dago, halaber, produktu edo zerbitzu anonimoak, zifratuak edo fikziozkoak kontratatzea.

Negozio-harremanak ezarri edo eragiketak gauzatu aurretik, benetako titularra identifikatu beharko da. Betebehar horren ondorioz, bezeroek beren kontura jarduten ez duten zantzurik edo ziurtasunik dagoenean, informazio zehatza bildu beharko da, jarduten duten konturako pertsonen nortasuna identifikatzeko. Baita zein ahalekin jarduten duen egiaztatzen duen nahiko dokumentazio ere.

Bezeroaren jarduera eta ondarea ezagutzea. Negozio-harreman bat ezarri aurretik, Taldeko sozietateek, gutxienez, bezeroaren lanbide- edo enpresa-jarduerari eta funtsen edo ondarearen jatorriari buruzko informazioa bildu beharko dute.

Bezeroari esleitutako arrisku-mailaren arabera, bezeroak emandako informazioa dokumentu bidez eta kanpoko iturri fidagarrien bidez egiaztatzeko neurri gehigarriak hartu ahal izango dituzte, batez ere bere lanbide- edo enpresa-jarduerari, funtsen edo ondarearen jatorriari eta barne-arau eta -prozedurei jarraituz garrantzitsua den beste edozein informaziori dagokienez.

### 4.3 Eragiketen detekzioa, kontrola eta azterketa

Taldeko sozietateek eragiketak detektatzeko, kontrolatzeko eta aztertzekeo baliabideak izan beharko dituzte. Baliabide horiek arriskuaren arabera aplikatuko dira, eta, edozein kasutan, eragiketak detektatzeko oinarritzko hiru kasuak jasoko dituzte:

- Taldeko langileek zantzuengatik egindako barne-komunikazioa.
- Eragiketa susmagarriak detektatzea ezarritako alerta-sistemen bidez (Taldeko sozietate bakoitzeko eta/edo zentralizatuta).
- Erakunde ikuskatzaileen edo agintari polizialen edo judizialen komunikazioak.

Eragiketa susmagarriak antzemanaz gero, analisi zehatz eta integrala egingo da, kapitalak zuritzearen eta terrorismoa finantzatzearen zantzuak benetakoak direla zehazteko. Azterketa hori egiteko metodologia horretarako propioa den prozedura batean jaso beharko da, Azterketa bereziko prozedura izenekoan. Azterketa hori, nolana ere, unitate komun berean zentralizatuta egongo da jurisdikzio berean jarduten duten Taldeko sozietate guztientzat.

Monitorizazioa automatizatu egingo da, eta legeak eta jardunbide egokiek une bakoitzean identifikatzen dituzten patroien arabera berrikusiko da jarduera.

### 4.4 Eragiketa susmagarrien jakinarazpena

Taldeko sozietateek beren ekimenez jakinaraziko diete ikuskapen-erakundeei edota Finantza Inteligentziako erakundeei edozein gertaera edo eragiketa, baita saiakera hutsa ere, baldin eta azterketa berezia amaitu ondoren erabakitzen bada eragiketan kapitalen zuriaketarekin edo terrorismoaren finantzaketarekin lotutako zantzuak edo ziurtasunak daudela.

Bereziki, bezeroen izaerarekin, jarduera-bolumenarekin edo aurrekari operatiboekin nabarmen bat ez datozen eragiketak jakinaraziko zaizkie erakunde ikuskatzaileei.

Jakinartzeko erabakia jurisdikzio bakoitzean zentralizatuta hartuko dute horretarako izendatutako pertsonak edo organoek, eta gaitutako ordezkariaren bidez egingo da agintari eskudunen aurrean. Egindako jakinarazpenean, nolana ere, negozio-harremanarekin jarraitzeari edo ez jarraitzeari buruz hartutako erabakiaren gaineko informazioa sartuko da, baita erabaki horren justifikazioa ere.

Zantzuen jakinarazpena egitea eragotzi gabe, erakundeak arriskua kudeatzeko eta arintzeko neurri gehigarriak hartuko ditu berehala, eta horiek jakinarazteko arriskua kontuan hartu beharko dute.

Taldeko langileek ezin izango dute inolako eragiketarik egin, baldin eta kapitalen zuriaketarekin edo terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia duen zantzurik edo ziurtasunik badago.

Taldeko enplegatuek, zuzendariak edo agenteek ez diete bezeroari eta hirugarrenei jakinaraziko barne-kontrolako organoei edo erakunde gainbegiraleari informazioa jakinarazi zaiela, edo aztertzen ari direla edo eragiketaren bat azter daitekeela, kapital-zuriaketarekin edo terrorismoaren finantzaketarekin zerikusia izan dezakeelakoan.

#### 4.5 Zehapenen zerrenden kontrola eta detekzioak jakinaraztea

Zehapen-programek ezartzen dituzten murrizketak betetzeko, Taldeko sozietateek honako hauek egin beharko dituzte:

- Nazio Batuek (NB), Europar Batasunak (EB), OFACek eta Taldeko sozietateek jarduten duten jurisdikzioetan aplikatzekoak diren tokiko programek ezarritako zehapen-programak identifikatzea eta jarraitzea.
- Zehapen programekin lotutako jardueri lotutako arriskuak ebaluatzea, zehapenek mugatutako edo debekatutako jardueretan parte hartzeko edo esku hartzeko arriskuak zehazteko.
- Zigortutako pertsonekin eragiketak edo transakzioak egiteari edo horietan parte hartzeari uko egitea.
- Transakzioak, ordainketak edo harreman komertzialak gauzatzeko debekuak eta murrizketak betetzea, eta horiek ez betearaztea, zehapen-programak ez betetzea badakarte.
- Aktiboak eta funtsak blokeatzea, zehapen-programek hala eskatzen dutenean, eta horren berri ematea zehapen-programak administratzen dituzten autoritateei.
- Taldeko sozietateen betebeharrak behar bezala betetzea ahalbidetuko duten barne-kontrolako prozedurak eta prebentzio-mekanismoak ezartzea, iragazte automatizatuko prozedurak eta tresnak barne (screening).

#### 4.6 Dokumentazioa atxikitzea

CaixaBank Taldeko sozietateek dokumentazioa kontserbatzeko politikak ezarriko dituzte, jurisdikzio bakoitzean aplikatzekoak diren lege-eskakizunak betez. Gutxieneko kontserbazio-aldia une bakoitzean arlo horretako legeriak ezartzen duena izango da.

Prebentzioko legeen arabera kontserbatu beharreko dokumentazioak, gutxienez, honako alderdi hauek biltzen ditu:

- Bereziki, ikuskatzaileek edo beste edozein autoritate eskudunek prebentzio-kasu posibleei buruzko ikerketa edo analisi guztietan erabiltzeko kontserbatuko du.
- Arrazoizko arretaren neurriak aplikatuta eska daitezkeen dokumentuen kopia, identifikazio-dokumentu frogagarrien kopiak, bezeroaren adierazpenak, bezeroak emandako dokumentazioa eta informazioa edo iturri fidagarri independenteetatik lortutakoa barne.

- Eragiketak, horietan esku hartzen dutenak eta negozio-harremanak behar bezala egiaztatzen dituzten dokumentuen edo erregistroen jatorrizkoa edo kopia, froga-indarrarekin.
- Komunikazio- eta barne-kontrolako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duen dokumentazio guztia:
  - Erakunde ikuskatzaileei egindako jakinarazpenak.
  - Adimen finantzarioko agintarien aurrean ordezkariak izendatu direla jakinaraztea.
  - Azterketa bereziko espedienteak.
  - Erakunde ikuskatzaileei bidalitako eragiketa susmagarrien jakinarazpenak eta horiekin lotutako dokumentazioa.
  - Erakunde ikuskatzaileengandik jasotako informazio-eskakizunak eta bilaketa-eskaerak.
  - Kanpoko adituaren azterketaren urteko txostenak eta erlazonatutako dokumentuak.
  - Barne-kontrolako organoen bileren aktak, eta prebentzioaren arloan eragina duten alderdiei buruzko beste organo batzuen aktak eta dokumentuak ere kontserbatuko dira.

#### 4.7 Prestakuntza

Delitu horiekin lotutako arriskuei buruzko sentsibilizazioa funtsezko elementua da zurriztearen eta terrorismoaren aurkako borrokan.

CaixaBank Taldeko sozietateek langileen prestakuntza-programak definitu, mantendu eta aplikatu beharko dituzte, langile guztien sentsibilizazio-maila egokia bermatzeko, legeek eskatzen duten bezala, eta kapitalen zurrizketari, terrorismoaren finantzaketari eta langile guztien zehapenei (goi-zuzendaritza eta administrazio-organok barne) buruzko nahitaezko prestakuntza bermatuko duten politikak ezarriko dituzte, aldi behin eta beren jarduerak gizarlean duen arrisku-mailaren arabera.

CaixaBank Taldeko sozietate guztien KZP/TFren eta Zehapenen prestakuntza-programak CaixaBank-eko Araudia Betetzeko unitateak baliozkotu beharko ditu, Taldeko unitate espezializatu gisa, sozietatearen prestakuntzaz eta betetzeaz arduratzen diren sailek baliozkotu ondoren, eta emandako prestakuntzaren erregistroa eta ebidentzia, edukiak eta prestakuntza jaso eta gaintu duten langileak gorde ondoren.

#### 4.8 Arriskuaren kudeaketa finkatua

CaixaBank-en ustez, Printzipio hauekin lotutako arriskuei aurre egiteko modurik onena horien kudeaketa bateratua eta arrisku horien kudeaketarekin lotutako informazioaren kudeaketa uniforme eta erantsia da, osatzen duten sozietateek jarduten duten jurisdikzioa edozein dela ere.

Kudeaketa agregatuaren edo bateratuaren printzipioa prebentzio-ereduaren funtsezko zutabea da, eta Taldeko sozietate guztien ahaleginak modu uniformean koordinatzea ahalbidetzen du, baita arriskuak modu agregatuan ebaluatzea eta kudeatzea ere.

Horregatik, Taldea osatzen duten erakunde guztiek unean uneko informazioa emango diote Caixabanki arrisku handiko harremani, jarduera sentikorren datuei eta horiei lotutako arriskuei buruz, eta azkar erantzun diote CaixaBankek kapital-zurrizketarekin, terrorismoaren finantzaketarekin eta zehapenekin lotutako erregulazio- eta ospe-arriskuaren kudeaketan egin diezaiokeen edozein informazio-eskaerari.

Dena dela, betebeharrak aplikagarri den araudia zorrotz betetzearen eta, bereziki, datuak babesteari eta pribatutasunari buruzko araudia betetzearen kalterik gabe beteko dira. CaixaBank-ek eta Taldeko sozietateek

beharrezko neurriak hartuko dituzte Taldeko erakundeen artean era horretan jakinaraz diren datuen konfidentziasuna eta pribatutasuna babesteko.